



IKASTOLAKO
ALDIZKARIA

2001ko
apirila

GURE GAUZAK

14^{zk.}

A. R. Olabide, Koop. Elk.
Tel.: 945150 640
Postasaila 571
01080 Vitoria-Gasteiz
e-mail: posta@olabide.com

Milurteko berri honetako lehenengo zenbaki honek zuekin zuzenean egoteko aukera eskaintzen didanez, ez nuke egokiera galdu nahi zuek denok agurtzeko, eta bide batez, nire eginkizunean ardatz izango diren erronken inguruan bi hitz esateko.

Deus baino lehen esan behar dizuet aurkezpen gisa Ikastola munduan hazia eta hezia naizela. Jadanik batzuk dakizuen bezala gerra zibila osteko lehen ikastola kumeetakoa naiz eta orduz geroztik, ikasle ezezik, haurtzaindegiko irakasle, administrari, zuzendari eta gurasoa izan naiz. Nire azken 23 urteak Orereta Ikastolan eman ditut lanean, horietatik, azken 17ak zuzendari gerente bezala.

Hala ere, badakit Gipuzkoako mendi eta kosta aldetik Arabako lautada aldera gure hizkuntza eta kulturak oso bestelako egoera bizi duela, eta aspektu honek, biziki erakarri nau Olabide aldera. Niretzako ohore bat da eta bihotzez dizuet, Gasteiz euskalduntzeko zutabe nagusi honen gidari izatea. Araba bertatik bertara ezagutzeko gogoaz gain, arestian aipatutakoa izango litzateke hona etortzeko zio nagusia.

Horiek baldin badira nire erronka pertsonalak, erronka nagusiak Olabide Ikastolarekiko honako hauexek dituzue: 1.- **Euskara** indartzea; 2.- Komunikazioa hobetzea eta honetarako ahal den neurrian **komunikazio** guneak indartzea, proiektu komunak landuz, Olabide Ikastolaren Eguna konparazio baterako, Kalitatearen ezaugarriei helduz prozesuak elkarrekin eramanaz eta abar; 3.- **Ekonomia** bideratuz, kuotak denontzat eramangarriagoak eginez eta, 4.- **Orain arte egindakoa mantendu**, ez dela gutxi.

Erronka hauei aurre egiteko guztien laguntza ezinbestekoa da. Ni izan naiteke koordinatzailea, animatzailea eta nire esperientzia eskaini dezaket proiektu hau aurrera eramateko, baina esan bezala, guztien laguntza behar da. Ildo honi jarraituz, zuen iritziak eta ekarpenak jasoko dituen galdeketa bat pasako dizuegu laster gurasoei, irakasleei eta beste langileei pasa diegun bezala. Erantzun ezazue **denok**, garrantzi handia baitute zuen ekarpenak eta zuen hobekuntza proposamenak.

Eta azkenik esan, ibilbide berri hau hasi besterik ez dugula egin, egun batean dena ez dugula egingo, baina ilusioz, dugunari eta garenari eutsiz, poliki-poliki eta ibilian seguru aurrera egingo dugula. Besterik ez, eskerrak mila eta hurrengo arte.



Este primer numero del nuevo milenio me brinda la oportunidad de dirigirme directamente a vosotros, y no quiero desaprovechar la ocasión de saludaros a todos, además de comentar brevemente los principales retos que me he marcado.

Antes que nada comentaros que he crecido y me he educado en el mundo de las Ikastolas. Como ya sabéis algunos soy ex-alumno de la primera ikastola que surgió tras la guerra civil, y desde entonces, he sido además de alumno, profesor de infantil, administrador, director y padre de ikastola. He pasado los últimos 23 años trabajando para Orereta Ikastola, de los cuales los últimos 17 han sido como director gerente.

A pesar de todo, soy consciente que de los montes y costa de Guipúzcoa a la llanada Alavesa nuestra lengua y cultura viven situaciones muy diferentes, y este aspecto me ha atraído fuertemente hacia Olabide. Os digo de corazón que para mí es un honor, dirigir este soporte esencial para la euskaldunización de Gasteiz. Además de las ganas de conocer Araba directamente, las principales razones para venir se encuentran en lo mencionado anteriormente.

Si los anteriores son mis desafíos personales, los retos principales respecto a Olabide ikastola serían los siguientes: 1. Fortalecer el **euskera** 2. Mejorar la comunicación, para lo cual en la medida de lo posible tendríamos que fortalecer los espacios de **comunicación**, trabajando conjuntamente en proyectos comunes, a modo de comparación el Día de Olabide Ikastola, o partiendo de los principios de la Calidad, trabajando procesos en equipo etc. 3.- Encauzar la **economía**, para que las cuotas sean más llevaderas para todos y 4. **Mantener lo realizado hasta ahora**, que no es poco.

Para hacer frente a estos retos, es necesaria la ayuda de todos. Yo puedo ser el coordinador, el animador y puedo ofrecer mi experiencia para llevar a cabo este proyecto, pero repito, es necesaria la ayuda de todos. Siguiendo en esta línea, en breve os enviaremos un cuestionario, a los padres/madres, tal y como se ha hecho con los profesores y demás trabajadores. Contestar **todos**, ya que, vuestras opiniones tienen gran valor, así como vuestras propuestas de mejora.

Por último deciros, que acabamos de comenzar esta nueva trayectoria, que no vamos a hacerlo todo en un solo día, pero con ilusión siendo coherentes con lo que tenemos y lo que somos, poco a poco y dando pasos seguros iremos hacia delante. Sin más por el momento, daros las gracias y hasta cuando queráis.

IÑAKI ZUBELDIA
ZUZENDARI OROKORRA

Bakearen eguna en Olabide

OLABIDE IKASTOLAN

Día Internacional de la Paz en OLABIDE IKASTOLA

Pasa den urtarrilaren 30ean, ohi denez, munduan zehar nazioarteko bakearen eguna ospatu zen.

Hau zela eta aurten osaturiko "baloreen komisioan" data honen inguruan bakearen aldeko ihardura batzuk antolatzea proposatu zen.

Bakearen alde beste une askotan (ikasgelako egoera eta iharduertan) lan egin arren, hau izan da egun hau ofizialki ospatzen dugun lehenengo aldia.

Goraipatzekoa da, hasieratik Etapa guztietako irakasleek eta Administrazio eta Zerbitzuko lankideek

azaldu zuten jarrera faboragarria eta eginiko lana, guzti honekin kontatu gabe ez baitzen posible izango prestaturiko egitaraua burutzea. Lerro hauetatik eta ikastolaren izenean eskerrik asko guztiei. Aldi berean eskertu nahiko genieke Fabian Laespada (Ikastolako gurasoa) eta Aritz Santxori (Ikastolako ikasle ohia) Batxilergo ikasleei emandako hitzaldia eta une guztietan eskeinitako jarrera lagungarriatik.

Planifikaturiko eta burututako ekintza ezberdinak ikasleen adinari egokitzen saiatu ginen, baina horietako bat guztientzako amankomuna izatea nahi genuen, une edo esparru batean ikasle guztiek bat egin zezaten. Horrela bakearen aldeko hormairudizko itun handi bat egitea bururatu zitzaigun. "Bakea gure bihotzean jaiotzen da" lelopean Etapa guztietako irakasleek bere eskua hormairudian margotuz bakearen aldeko konpromezu sinbolikoa adierazi zuten. Honetaz gain beste ekintza asko gauzatu ziren, beste hainbeste artean: haurren eskubide eta giza eskubide irakurketa; zine-forum batzuk; ikasgelako elkarbizitzaz eta sortzen diren arazoaz eta, ondoren, ikasgelarako arautegi bat osatzea; muralak; "Gesto por la paz" eta Elkarririkin salasaldia; etab.

Guzti hauetatik berri izan zenuten egun hau ospatu baino lehen, beraz ez dut gehiago komentatu. Balorazioa egiteko momentuan, hurrengo ondorioak azpimarratuko nituzke:

-Irakasle eta Administrazio lankideen inplikazio maila eta ikasleen parte-hartzea oso altua izan da.

-Antolamendu aldetik aspektu batzuk hobetu beharko genituzke ospakizun hau borobilagoa izateko (barne koordinazio maila, gurasoei ekintza batzuk egiteko behar diren baldintzetan informatzean, etab). Azken hauek izan dira antolatzeke epea estutasunaren ondorioa. Aldez aurretik baldintza honekin kontatu beharko genukela jakinaren gainean egon arren, proiektuaren garrantzia eta aproposatasunak aurrera bultzatu gintuen.

-Egokia litzateke gurasoen parte-hartzea bilatzea eta gurasoei zuzendutako ekintzak antolatzea.

-Hurrengo urteetan jarraitu beharko genuke egun hau ospatzen, baina benetazko lan emankorra egunero ikasgeletan eta etxeetan egin dezakeguna dela ahaztu gabe. Etorkizunari begira lan hau sakondu eta sistematizatu beharko da.

Artikulu hau bukatzeko berriro, ikastolaren izenean, eskerrik asko ospakizun hau posible egin zuten guztiei.



El pasado día 30 de enero, como de costumbre, se celebró en todo el mundo el Día Internacional de la Paz.

Con tal motivo se propuso en la "comisión de valores", formada el presente curso, la realización de una serie de actos para conmemorar tal evento.

Esta es la primera vez que se celebra de forma oficial en Olabide ikastola esa efemérides y viene a reforzar el trabajo habitual en el aula a favor del desarrollo de una educación para la paz.

Debemos destacar en primerísimo lugar la buena acogida y el trabajo realizado por el profesorado de todas las

Etapas y el personal de Administración y Servicios, sin los cuales sería imposible la realización de los actos previstos. Aprovecho estas líneas para agradecer públicamente y en nombre de Ikastola el esfuerzo realizado por estos colectivos de profesionales. Al mismo tiempo deseo expresar nuestro agradecimiento a Fabián Laespada (padre de Ikastola) y a Aritz Santxo (ex alumno), tanto por la charla ofrecida a los alumnos-as de Bachiller como por su predisposición a colaborar en todo momento.

A la hora de planificar las distintas actividades quisimos que éstas se adecuaran a la edad de los alumnos pero también que en algún momento confluyeran todos ellos para reforzar la sensación de unidad a favor de la paz. Así bajo el lema "La paz nace en nuestros corazones" los alumnos de Olabide firmaron un compromiso simbólico en favor de la paz, estampando sus manos en un gran documento en forma de mural.

Además de la mencionada actividad común, hubo actividades dirigidas a las diferentes Etapas, entre las que podemos destacar: lectura de los derechos del niño y de los derechos humanos; comentario de algunas películas; análisis de posibles situaciones conflictivas en el aula y planteamiento de posibles normas para su prevención; realización de murales en E. Infantil, charla-coloquio de los alumnos-as de Bachiller con representantes de Elkarririkin y "Gesto por la paz" sobre la situación vasca; etc.

Como de todas estas actividades recibisteis puntual comunicación, no ahondaré más.

A la hora de realizar una valoración y extraer las pertinentes conclusiones cara al futuro, yo destacaría:

1.-La gran implicación y trabajo realizado por el profesorado y el personal de Administración y Servicios.

2.-En cuanto a la organización, debido al escaso tiempo con que contamos, habría que mejorar pequeños detalles relativos a planificación, coordinación interna e información a los padres). Sin embargo, pensamos que el interés y oportunidad de las actividades realizadas compensan estas posibles deficiencias.

3.-Deberíamos buscar una mayor participación e implicación de los padres además de organizar actividades dirigidas a ellos.

4.-En los próximos años deberemos continuar organizando esta efemérides, sin olvidar que el trabajo más importante y efectivo consiste en profundizar y sistematizar el trabajo que realizamos en el aula y desde casa.

Para finalizar el presente artículo, deseo reiterar de nuevo nuestro agradecimiento a todas aquellas personas que han hecho posible esta celebración.

HAUR HEZKUNTZAN **Ihauteriak** *haur hezkuntza*

Otsaileko azken egunetan urduria nabaria zen Olabideko Haur txikien artean, eta gehienek ihauteri jaiari buruz hitz egiten zuten nagusiki, zertaz mozorrotuko ziren elkarri galdezka, ihauteriak bertan genituelaren seinale. Irakasleok ere "Hamelingo flautista eta xaguz" mozorrotzeko prestaketak hasi genituen, paperezko gonak eginez, artilezko buztanak, belarriak eta abar.

Baina ihauteri jai baina lehen txitxiburduntzi eguna genuen ospatzeko, indarrak hartzeko aukera ezin hobea. Otsailak 22 an, goizean goiz irakasleok bildu eta eskatutako txistorra mozten, sutea prestatzen eta mahaiak jarriz aritu ginen eta hamarrak aldean Alberdikoko pasabidean txistorrak prestatzeari ekin genion. Haur guztiak pasabideko lurrean eseriz txistorra banatzen hasi ginen, eta DBH tik etorritako trikitrilarien laguntzaz giro ezin hobea disfrutatzeko aukera izan genuen. Badirudi txistorra usaina lkastolako beste hainbat lekuetara ere zabaldu zela, lehen hezkuntzatik eta idazkarizatik bisita bat baino gehiago izan baikenuen.

Azkenik, ostirala heldu zen eta ume guztiak etxetik mozorroturik agertu zitzaizkigun. Lehen orduan argazkilaria gelaz gela pasatu zen eta gero guztiok pasabidera irten ginen. Lehen hezkuntzako haurren desfilea ikusteko asmoz. Desfile zoragarriaren ondoren irakasleok Hamelingo flautista aurretik genuela eta musikaz lagundurik saiotxo bat eskeini genien haurrei, eta guztiok dantza batean aritu ginen jolastokira joateko ordua heldu arte.

Como todos los años y dando comienzo a la fiesta del carnaval el día 22 de febrero el pasillo de educación infantil se convirtió en un entorno folklórico donde los trikitrilaris de la ESO amenizaron el reparto de txistorra entre los alumnos de infantil en un día de marcada tradición como el del jueves de lardero o txitxiburduntzi. Seguidamente el día 23 de febrero se celebró la fiesta del carnaval donde los alumnos de primaria desfilaron por el pasillo luciendo los disfraces confeccionados en clase por ellos mismos, finalmente los propios profesores de infantil al son de la música emularon al flautista de Hameling y sus ratones ataviados con los disfraces creados con plásticos, cartones, papeles, lanas, etc.



Artistak egun batez **José Ramón Amondarainen** *Erakusketa*



Martxoaren 5ean eta 6an haur hezkuntzako HH 26 mai-latako bi gela Jose Ramon Amondarain margolari donostiarrak Amarika aretoan aurkeztutako arte obrak ikusteko parada izan zuten, Sinopsis izenburupean euskarri ezberdinetan burututako obra lanetaz gozatzeko aukera ema zitzaien. Honetaz gain umeak protagonista bilakatu ziren, amantala jantzita eta paleta eskuan hartuta kolore ezberdinetako margoak erabili zituzten elkarlanean aritzeko, horrela denen artean hormairudi bikainak eratu zituzten artistak berak azaldu-tako teknika propioa erabiltzeko nahian

...

Durante los días 5 y 6 de marzo dos clases de último año de educación infantil tuvieron la oportunidad de contemplar las obras de arte realizadas por el pintor donostiarra Jose Ramon Amondarain que bajo el título Sinopsis se exponen en la sala amarica, pudiendo además convertirse en artistas por unos instantes.

Lehen hezkuntza **LEHEN HEZKUNTZA** **Oñati eskolara**

Aurtengo martxoan eta udaberria heldu aurretik gure haurrek LH 1, LH 2, eta LH 3 ; natur inguru batean ikastera eraman genituen. Beti ere errezago jabetzen dira zuzenean ikusi , ikutu, usaindu...dituzten gauzekin.

Azken hau lortzeko Oñatiko Natur eskolara jo genuen eta beraien eskutik, kandela bat egin, zuhaitz bat landatu, animalien erakusketak ikusi eta baserri inguruan apur bat murgildu ginen.

Oso ekintza positiboa izan da nahiz eta eguraldiak ez lagundu beti.



Nuestros alumnos de 1º, 2º y 3º de Primaria visitaron la escuela de Naturaleza de Oñate. Allí tuvieron la oportunidad de hacer una vela, plantar un árbol, ver una exposición de animales, en fin de sentirse un poco más cerca de un medio natural.

COMENIUS

Hiru urte iraun dituen "Comenius" proiektua bere amaierara iritsi da. 4.DBH amaieratik 15 bat pertsona elkarlanean aritu gara Europako beste hainbat lurralderekin. Helburuetako bat bakoitzak bere herria eta beste lurraldeak hobeto ezagutzeko izan da, bertako ohiturak, kultura, geografia...eta itsasorekin zerikusia duten beste hainbat ezaugarri jorratu.

Proiektuan barne Ingalaterra, Belgika, Grezia, Italia eta geu egon gara eta bakoitzaren zeregina gai bakoitzari buruzko galderak egin eta besteen erantzuna jasotzea izan da.

Azken bilkura Italian izan da eta bertan denak elkartu eta lanaren azken konklusioa izan dugu aztergai. Probetxuzko lau egun izan dira non besteen lan-egiteko, bizitzeko eta ondo pasatzeko moduen partaide izan garen.

Proiektu honen azken egitasmoa lan guztiaren liburu bat plazaratzea izango da, jadanik sarean dabilen web orriaz gain:www...

El proyecto "Comenius ha tocado a su fin. Desde 4º de Secundaria, tras tres intensos años de trabajo entre profesores y alumnos de ikastola así como con alumnos de otros países que han sido Italia, Bélgica, Grecia e Inglaterra, Genova ha sido el último punto de encuentro para el "Comenius".



Nuestro trabajo ha consistido en la adquisición de conocimientos acerca de diferentes aspectos de los países mencionados anteriormente, que han sido los que han participado en el mismo.

Cultura, geografía, costumbres y temas relacionados con el mar han sido la base de este proyecto.

Como último quehacer podemos comentar la publicación de un libro en el que se recogerán todos aquellos puntos trabajados durante estos años, así como la ya terminada página web: www.....

Haizea Rodríguez eta Ane Lizarazu

XAGUX@RRAK: Donatoren tertulia

Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina **campana de animación a la lectura**

Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina bat antolatu du Eusko Jaurilaritzak Kultura Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskutik. Kanpaina honen kudeatzailea Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza da. Ikasturte honetan ekainetik irailera bitartean jarriko da abian. Azpimarratzekoa da 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutulei eskeintzen zaiela

Xedek:

Lenengoa, ikasleei euren literatur irakurketa errazteko asmoz, irakurketa material ugari jartzea eskuragarri ingurune atsegin eta erakargarrian. Eta, era berean, Euskal Herriko ahozko kultura eta literatur tradizioaren berri izateko aukera ematea. Eskuratutako materialak euskarazkoak izan ziren bereziki baina ez soilik. Kanpaina honen bigarren helburu nagusia ikastetxeetako ikasle zein zuzendaritza taldeei eta udal liburutzeen zuzendutakoa da. Irakurtzeak duen garrantziak jabe daitezela, auskaraz dagoen literatur ekoizpena baloratzeko eta gazteen artean irakurketa sustatzeko duten eragina kontuan izanik, baraien ikaspraktika zentzu horretan lan dezatela lortu nahi da nagusiki.

Kanpainaren osagai nagusia, autobus ibiltaria

Autobus ibiltaria da kanpainaren osagai nagusia eta bertan antolatu izan dira jadanik kanpainako saio batzuk. Ordubeteko saioak izan dira eta azarora eta abendua bitartean DBH1go eta 2. mailako ikasleek hauetan parte hartu izan dute. Gela mugikor honek bere baitan liburutegia eta saio desberdinak garatzeko behar diren baliabide guztiak ditu, hala nola 10 ordenagailu multimedia ekintzak burutzeko, 56" ko TB monitorea bat eta DVD bideo erreproduzitzaile bat kanpainareko propio eskatu diren bideoak ikusteko, HIFI ekipoa estereoa kantak, bertsoak, e.a. entzun eta jorratzeko, eta 12 metroko liburutegia liburuak erakusteko.

El Departamento de Dducación, Universidades e Investigación y el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Innovación Educativa y de la Dirección para la coordinación y promoción del euskera ha puesto durante el presente curso escolar 2000-2001 esta campaña de incentiación y animación a la lectura, dirigida fundamentalmente a alumnos y alumnas de 12 a 16 años.

Finalidades:

Que los alumnos y alumnas tengan acceso y tomen contacto con diversos materiales de lectura en un entorno estimulador y atractivo que favorezca la lectura literaria y especialmente de las obras escritas en euskera así como una aproximación a la cultura oral y literaria del País Vasco. Que los docentes siendo conscientes de la importancia de la lectura, valoren la producción literaria en euskera y enriquezcan sus prácticas educativas relacionadas con su labor como mediadores en la promoción del libro entre los jóvenes.

Un aula itinerante como elemento principal de la campaña

El soporte de la campaña la constituye un autobús que es una aula itinerante en la cual nuestros alumnos de 1º y 2º de Secundaria durante los meses de noviembre y diciembre han podido realizar diferentes actividades de dicha campaña. Este aula móvil está dotada de todos los medios necesarios para poder llevar a cabo las distintas actividades. Se han instalado en su interior 10 ordenadores multimedia para realizar distintas actividades, un monitor TV 56 pulgadas y un vídeo reproductor DVD para poder ver los vídeos preparados expresamente para esta campaña, un equipo de HIFI estéreo para oír canciones, versos, etc., y una biblioteca de 12 metros cuadrados en la que están expuestos, clasificados y ordenados los libros seleccionados para la campaña.

Mairuelegorretara irteera

lepa lagunak!

Urtarrilaren 26an, DBH 3.A eta B taldeetako ikasleok, egunerokortasunari alde egin nahian, Unzalu, Marije eta Mirenekin batera Gorbeia mendirantz joan ginen. Irteera, Bio-Geo ikasgaiarekin bat zetorren gaia hobeto ezagutzeko egin genuen bereziki, hau da, Mairuelegorretako kobazuloak dituzten ezaugarriak ezagutzeko.

Goizeko bederatziatan autobusa hartu eta martxan jarri ginen. Ordu erdi beranduago, bertara heldu ginenean, autobusa korrika batean utzi eta ibilaldiari ekin genion. Hasiera batean kontu handiz ibiltzen ginen zikindu ez izateko, baina kobazuloetara heltzean, kontu hori bertan behera utzi behar izan genuen bertako panorama labankorraz jabetzean. Lokatzean irristatu eta jaustea ere gertatu zitzaigun, aldapan behera gindoazela batik bat. Hura izan zen abentura, hura! Azkenean estalagmitak eta estalagmitak direlako horiek ikustea lortu genuenean, tipi-tapa eta poliki-poliki kanpora bueltatu ginen berriro. Aitzulotaraino joateko igoera erreza izan ez bazen, pentsa ezazue jaitziera, elurra eta euriaren arteko zerbait zetorkigula zerutik. Eskerrak Mirenen Kit-Katak, Marijeren laranjak eta Unzaluren regalizo infusio goxo eta beroari (goxoarena esatekoera bat da) indarra eman zigutela. Horrela, bakoitzak ahal zuen arroparekin, egiten zuen hotzaz babestuz eta blai eginda autobusa zegoen tokira heldu ginen. Berau hartu eta ikastolarantz abiatu ginen, segidan, etxeko dutxa azpira joateko asmotan.

Sekulako giroa zegoela somatu genuen (beste txango bat egiteko modukoa) Ez dakigu Unzaluk lortu nahi zuen helburua bete genuen, baina primeran pasatu genuen behintzat.

Hola amigos!

El viernes 26 de enero, hicimos una visita a las famosas cuevas de Mairuelegorreta en las faldas del monte Gorbea. El día no nos ayudó mucho, ya que la mayoría del tiempo estuvo lloviendo. Nos acompañaron en esta excursión Joseba Unzalu (Bio-Geo), Miren Barinaga (Lengua) y Marije González (Euskera).

Salimos sobre las 9 de la mañana, en media hora ya podíamos ver los montes. El autobús debido a su gran tamaño no nos pudo acercar hasta el final del trayecto de carretera y anduvimos un corto tramo más. Al llegar a la cueva encendimos las linternas y nos sumergimos en ella. No se veía mucho y el suelo húmedo y resbaladizo fueron las causas de que más de uno aterrizáramos en un charco. Al llegar, allí estaban esperándonos las impresionantes estalactitas y estalagmitas. Una vez recorrida la cueva nos esperaba un "pequeño" almuerzo, alguno apareció con la tartera en la que asomó una hermosa tortilla de patatas así como tres filetes de lomo todo ello acompañado de pan. ¡Ay si no fuera por la madres! Hubo un rato libre en el que cada uno hizo un poco lo que le apetecía, visitar la otra cueva, hablar o simplemente sacar unas fotos...

En la bajada a la hora de regresar se puso a granizar fuertemente y la mayoría llegamos totalmente mojados al autobús, y hubo que cambiarse antes de subir.

Así se puede resumir ese día que pasamos en las cuevas.

Irune eta Ainhoa 3.A



Adierazpen dramatiko programan gure ikasleak protagonista Nuestros alumnos protagonistas en los talleres de expresión dramática

Gure DBH-ko ikasle guztiak beraie zuzendutako Adierazpen Dramatikoko programaren parte hartzaileak dira.

Gasteizko Udalak aurkezgai dituen tailerrek antzerki ikuskizun itxura hartzen dute eta hauen helburua antzerkitik antzerkiak hitz egiteaz gain ikasleen berezko adierazpen gaitasuna bultzatu eta arte dramatikoaren lengoia ulertzea ahalbideratuko dien ballabide didaktiko bilakatzea da. Jarduera hau DBH-ko lau mailetara zuzendua dago **eszenaratzearen prozesuaren ezagupenetik antzerki lan baten muntaia eta antzezpenerako parte hartze aktibora doan eduki hurrenkeran**. Hartara, partehartzailea antzerki sorkuntzaren prozesura hurbiltzea erraztu eta eszenatokiaren kanpotik eta barnetik egintza artistiko hau gertatzea ahalbideratzen duten antzerkiaren zerikusia duten ahalbideak ere erakusten dira. Aldi berean, antzerkiaren historian esanguratsu gertatu diren **antzerki testuak** aurkeztu eta **eszenatokiaren eta ikuslegoaren arteko harremanak** esperimentatuko dira.

Todos nuestros alumnos de Secundaria participan en el Programa de Teatro que ofrece el Ayuntamiento de Vitoria.

Los talleres en los que participan los alumnos toman forma de espectáculos teatrales, cuyo objetivo es hablar del teatro desde el teatro y convertirse en recursos didácticos que permitan a los alumnos comprender el lenguaje del arte dramático y estimular su propia capacidad de expresión. Esta actividad, como ya hemos dicho, va dirigida a los cuatro niveles de ESO en una **progresión de contenidos que avanza desde el conocimiento del proceso de la puesta en escena hasta la participación activa en el montaje y representación de una obra teatral**. De este modo se propicia el acercamiento del participante al proceso de creación escénica y mostrando también las profesiones, relacionadas con el teatro, que hacen posible que se produzca este hecho artístico desde dentro y fuera del escenario. Simultáneamente se presentarán **textos teatrales** significativos en la historia del teatro y experimentarán diferentes **relaciones entre el escenario y el público**.

LEHEN ZIKLOA • IKASLEAK IKUSLE ESZENARATZEAN

EDUKIAK	DBHko 1.a ANTZERKIAREN SORKUNTZAREN PROZESUA		DBHko 2.a IKUSKIZUNAREN INGURUNE PUBLIKOA	
	Lehen tailerra	Bigarren tailerra	Lehen tailerra	Bigarren tailerra
1. TESTUTIK ANTZESPENERA				
1.a. Eszenaratzearen prozesua	Entseilua	Emankizun teknioa	Estrenaldia	Antzespenera
1.b. Profesionalak eta euren betebeharrak	Egilea, zuzendaria eta antzezleak	Eszenagrafoa, argizatzailea, figurinista eta musikaria	Produktorea eta banatzailea	Kritikoa
2. ANTZERKI TESTUAK	Komedia latina	Urrezko mendea	XX. mendearen lehen herena	T. contemporáneo J. Sanchis
	Plautoren Menekmoak	Calderón eta Lope de Vega	Valle-Inclán ne Ligazón	Sinisterraren Perventimento
3.- ANTZESPENAREN ESPAZIOA	Anfiteatroa	Espazioa isabeldarra	Espazioa bifrontala	Italiar erako espazioa

BIGARREN ZIKLOA • IKASLEAK PARTEHARTZAILE ESZENARATZEAN

EDUKIAK	DBHko 3.a IKASLEAK SORTZAILE		DBHko 4.a IKASLEAK ANTZEZLE	
	Lehen tailerra	Bigarren tailerra	Lehen tailerra	Bigarren tailerra
1. TESTUTIK ANTZESPENERA				
1.c. Prozesua sorkuntzaren	Zuzendariaren koadernotik entseilura	Antzezpeneratik ikuslearen koadernora	Experimentazio tailerra	Antzezpean parte hartzea
1.d. Antzerki lanaren barne elementuak	<ul style="list-style-type: none"> • Barne egitura • Pertsonaia • Espazio-denbora-akzioa 		<ul style="list-style-type: none"> • Barne egitura • Pertsonaia • Espazio-denbora-akzioa 	
2. ANTZERKI TESTUAK	M. Vinaver-en Disidente, claro		E. Ibsen-en Peer Gynt	
3.- ANTZESPENAREN ESPAZIOA	Entseiluen	Esperimentazio espaziala ikuspuntuaren inguruan	Tailerraren espazioa	Jarraikako espazioen esperimentazioa

olabide kultur elkarte

Hemen gaude berriro ere Kultur Elkarteko ekintzen berri emateko. Hauek dira hilabete hauetan izango ditugun ekitaldiak:

Apirilaren 7an Abesbatza Ofizialekoak (nagusiak) izango dira egun hau ospatuko dutenak Printzipal Antzokian.

Apirilaren 8an ere, Gasteiztik zehar, Dantzarien Eskola Arteko Lehiaketa ospatuko dugu Arabako Dantza Talde guztiekin batera.

Maiatzaren 11an, gure Ikastolako Abesbatzak kontzertu bat eskeiniko du Dendarabako Areto Nagusian, Caja Vitalek antolatutako Ostiral koraletan.

Os informamos de las actuaciones que tendrá nuestra Asociación durante los próximos meses:

• **7 de abril:** este día serán las Escolanías las que celebren el Día Coral con una actuación en el Principal.

• **8 de abril:** celebraremos el Certamen Interescolar de Danzas junto con todos los grupos dedanzas de Alava.

• **11 de mayo:** el coro oficial ofrecerá un concierto en el Salón de Actos de Dendaraba dentro del programa de la Caja Vital, "Viernes Corales".



Beste urte batzuetan bezala otsailaren 4ean Agate Deuna jaia ospatu zen Euskalerrri osoan. Gure Ikastolan aurreko ostiralean ospatu genuen, otsailaren 2an. Beste urte batzuekin konparatuz aurtun "abeslari" asko izan ditugu.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haur guztiok jolastokian elkartu ginen kanta batera egiteko asmoz. Horretaz gain gure Ikastolako Abesbatza eta bestalde, DBHko 3. mailako ikasleak ere, izan genituen Ikastolatik zehar kanta-kantari.

Euririk ez zuen egin. Beraz, hurrengo urteetarako aitzakirik ez dugu eta ea Ikastola osoak parte hartzen duen gure ohitura zahar hauetan.

EUSKARRAREN TXOKOA

Gure Raimundok, zer esango zukeen?

Pozik eta erdi triste erdi haserre nago!

Badakit asko eta asko ari zaretela euskaraz hitz egiten eta aldiro saiaturen. Badakit, baina akordioaren bat ere egin duzuela handienek, gure euskara maitea erabili asmoz baina... akordioari bai esanda ere askok eta askok ez duzue hitzik ere egiten eta horrek sekulako nahigabea ematen dit. Ea bada euskararen aldeko jai horrek eta korrikak euskaraz mintzatzera animatzen zaituzten.

Hau ere Raimundok esan zuen euskara ez zekiela penatua: "Y como no me gusta llorar estérilmente lo que puedo remediar, me apresto al trabajo." Esan eta egin, Ama Birgin Zuriaren plazan jaiotako gasteiztar honek euskara ikasi eta euskaltzain oso izan zen Euskaltzaindiaren sorreratik.

Euskara interneten, euskaldunak ere modernitatean!

Aurrekoan aipatu genizuen ikastolan badugula geure web-orria: www.olabi-de.com Orduan osatzeke zegoen baina orain berriz oso web-orri txukuna dugula esan dezakegu, zertxobait falta bazaio ere.

Web-gune ofizialaz gain ba omen dago sarean beste gune ez ofizial bat, ideia hau ona dela uste dugu, denen partehartzea eta batzuen kreatibitateari leihoak irekitzen dizkiolako, hala ere baditugu, bi eskaera oso garrantzitsu, bata, pertsona ororenganako behar den errespetua, eta bestea, ageri-agerikoa, nola liteke ikastolako ikasleek eginkoa izanik gaztelania hutsean izatea? Nola? Ezta elebiduna ere, beno espero dugu *proximamente en euskara* dioten hori betetzea.

Norbaitek posta elektronikoa euskaraz izan nahiko balu hara hor helbide euskalduna eta gainera doakoa: www.euskalerrria.org

Bestetik, ez dugu ahaztu behar gure hiri eder maiteak ere bere web-orria duela: www.vitoria-gasteiz.org

Informazio ugari dugu gure *ciudad*ean gertatzen denaz, hori bai, orri horretan bertan euskara gainean klikatu eta ez duzue ezer lortuko. Harrigarria da, eta sa-



lagarria aldi berean (web-orrian bertan dago kexa azaltzeko aukera) Gasteiz, Araba, Euskal Herria eta mundu guztia orokorrean, elebitasunera eta eleaniztasunera doanean bertako Udalak (Vitoriakoak) euskaldunen eskubideak, (ez aginduak, eskubideak!) berriz ere, "ahaztea". Aldundiak ere badu bere orria, bertan euskaraz gauza asko aurkitzen ditugun arren askoz ere gutxiago dira, eta atal eta leiho ugari gaztelania hutsean daude, eskerrik asko, berriz ere.

Ez gara ari pertsona zehatz baten euskalduntzeaz, inor behartzeaz, web-orri bat, testu bat, azken finean, euskaraz ere emateaz. Azkenik, eskubideez ari gara ez amets, ez agindu, ez bestelakoez. Erdaldun elebakarren eskubideak ziurtatzen diren modu berean Ikastolatik atera eta euskara gaztelaniaren pareko dela ikusi nahi dugu, guztion udaletxe omen denaren eskutik. *De todos y todas* baliteke, guztiona ez.

2. alea

Kaixo berriz ere Olabideko euskaltzale eta euskaldun guztioi! Leiho garela aipatu genuen aurreko alean baina dirudienez leiho hitza txikitxo da eta, beraz, ate izendatuko dugu. Zuentzako, ikasle, irakasle, langile eta guraso guztientzako ate.

Helburuak, aurrekoan bezalatsu asko dira, baina oraingoan bi nagusi aipatuko ditugu, denok atseginez irakurtzea eta zerbait gehiago jakitea orrialde hau pasatzerakoan.

Atalak zuek nahi dituzuen guztiak izan daitezke, zuen interes eta gure ahalmenen arabera.

Korrika badatorrr... Gas-Gasteizetik Bai-Baionara eta hori dela medio ...

...jai ederra prestatu dugu ikastolan guztiontzat. Azken hogeitertan gertatu ohi denez korrika pasa da Euskal Herri guztian zehar. 12. Korrika bi mila km baino gehiago eta beste edozein ekintzak bildu ahal dituen baino jende gehiago bilduz hamar egunez, gau eta egun lekukoa gelditzen ez delarik.

Honen inguruan ekitaldi ugari egin ditugu ikastolan, hitzaldi, bertso saio, jolas, korrika txikiak, muralak... Hala ere, gure korrika propioak aurrera darrai!! Hasi Izaskun Arrueren lan eskergatik eta gaurdaino, noiz arte? Betira arte! Gasteiz, Araba, Euskal Herria eta gu bizi garen bitartean gure korrikak darrai! Euskara sustatu, suspertu eta Gasteiz elebidun, eta beraz euskaldun, izatea baita gure jardunbidea. Haur eta gazteak prestatuko ditugu gero eta azkarrago doan gizarte honetarako, prestu jakintzan eta jarrean, gureganako nahi dugun errespetua eskainiz.

Esaera zaharrak :Zozoak beleari ipurbeltz

Esaera hau oso ezaguna da, baina polita ere bai, horretaz gain, esaera honek ez du inoiz gaurkotatzen. Guztiok egiten dugu halakorik, eta bizi garen gizarte honetan egunero dago esaera hau erabiltzeko parada, beta edota aukera.

Zuhurraren poltsak bi zulo

Esaera gehienak bezala honek ere badu eguneroko bizimoduarekin zerikusirik, ez baitira esaerak nola edo hala sortzen. Diru eta ondasunak ez dira zertan xahutu behar baina bizitza ere ez dugu alferrik galdu behar **tardean dago bidea**, kontsumismoan erori gabe baina dirua gordetzeko bakarrik ezin gara bizi.

Euskara hobetu asmoz Zenbakiak zehaztuz:

BAI

HamaHiru
hAmazortzi eta hEmezortzi biak ondo
hogeita bi
hirurogeita hiru
hogeita hamalau
laurogei
ehun
ehun eta bi
hirurehun/laurehun (-r- bai)
seihun/zazpiehun (-r- ez)
zortziehun/bederatziehun (-r- ez)
mila
milioi
mila eta bi (1002)
mila ehun eta bi (1102)
bi mila ehun eta bi (2102)
hamabi mila ehun eta bi (12102)
ehun eta hamabi mila ehun eta bi (112102)
zero (0)

EZ

hamairu
hogeita bi
hirurogei ta hiru
hogeitamalau
larogei
eun
ehunda bi/ ehun ta bi
hiruehun/ lauehun
seirehun/ zazpiehun
zortziehun/ bederatziehun
milla
milioi/miloi/millioi
mila ta bi
mila eta ehun eta bi

URGATZI

"Gure Gauzak" aldizkariko ale berri honetan, otsailak 20an egin zen Urgatziko Asanblada Orokorren gainean jardungo dugu.

Gai hau aukeratzearren zergaitia, data hurbil egotea ezetik, hausnarketa egin dezazuen ere bada.

497 bazkide familia eta 762 parteide dituen Elkarte bilerara 10 pertsona, Iñaki Zubeldia (Zuzendari berria) eta Urgatzi Juntako bi bozeramale barne, etorri ziren.

Guk, datu hauen aurrean, bi irakurketa posible egin ditugu:

- Urgatzi Kirol Elkarteak primeran funtzionatzen du. Ez dago arazorik, kexarik edota ideia berririk hainbat puntu aldatzeko.
- Eskolaz kanpoko ekintzek ez dute gure seme alaben heziketan garrantzirik. Soberan dakigu bi hauek ez direla egiazkoak, baina nahiko erdiragarria da gaiak hobeto edo txarrago aurrera eramaten saiatzen denarentzat, bazkide gehiengoren interes falta.

Urgatzi bezalako proiektu bat ezin da ondo eraman aurrera beti baldin bagaude itxioten besteek egin ditzatela esfortsu guztiak. Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala.

Para este nuevo número de la revista "Gure Gauzak" hemos elegido como tema la Asamblea Extraordinaria de nuestra Asociación Deportiva Urgatzi que se celebró el pasado 20 de febrero.

Las razones de la elección han sido dos fundamentalmente. Por un lado la proximidad de la fecha y por otro el que las familias reflexionen sobre la asistencia a tales reuniones.

Urgatzi cuenta con 497 socios y 762 participantes. A la Asamblea asistieron 10 personas entre las que se encontraban Iñaki Zubeldia (nuevo Director de Ikastola) y dos vocales de la Junta Directiva de Urgatzi.

Ante este dato hemos hecho dos posibles lecturas:

- Urgatzi funciona perfectamente, no hay problemas, quejas o posibles ideas para mejorar.
- Las actividades extraescolares deportivas no tienen importancia en la educación de nuestr@s_hij@s.

Sabemos que ninguna de estas dos cosas es cierta, pero resulta bastante descorazonador para los que con los mejores o peores resultados intentamos llevar adelante los temas, la más que aparente falta de interés de la mayoría de los socios.

Un proyecto como Urgatzi no se puede llevar adelante con un mínimo de garantías esperando que siempre sea el otro el que tire del carro. Que cada uno llegue a sus propias conclusiones.

IKASLEEN TXOKOA:

Zer da bizitza?

Egusentia

Koloreak eguzkipean jaiotzen hasten dira izpi meheen artean pentsamenduen bila hasiz, abesti bukatugabeen puska ageriak aurkitzean, sentimenduen pisua nabaritzen hasten naiz

Bizitza:

Heriotzarako lehenengo pausua. Bihotz akorde apurtuen doinuak, Erantzunik gabeko galderetan Pentsarazten dit. Baina zer da bizitza? Umeentzat jolasa; Gazteentzat parranda; Helduentzat lana; Zaharrentzat atsedena. Loreentzat eguzkia, Fotosintesia. Arraintentzat ura, Oxigenoa. Pobreetzat dirua, Idazleentzat ideiak; Medikuentzat gaixoak. Baina zer da bizitza?

IrAgAna:

Oroimena dator nigana. Arazo guztien zaparrada; Ezjakintasunaren hatzaparra. Oroitzapenen olerkia; Malkoentzat aterkia. Argazki zaharren marko apurtua; Miñespenaren lehen apustua.

OrAiNa:

Gaur egunerokoaren liraina. Mono-toniaren iluntasunean; Zakur ahaztuen bakardadean. Zalantzaren bihurrieria; Ezustearen huskeria. Denontzat aldakorra; Arazoentzat erabakiorra.

EtOrKiZuNa:

Filosofotentzat asmakizuna. Irudimenaren gaitasuna; Pakearen lasaitasuna. Xedeaen misterioa; Bizipenen jarria. Mamu berrien izua; Erabaki berrien pisua.

IzAn LiTeKeNa:

Etorkizun irudikatua lerdana. Ametsen jokua; Irribarrean zakua. Ametsgaiztoen izerdia; Aurre egitearen ausardia. Esperantzaren buztana; Sinismenaren laztana.

IzAn ZiTeKeEna:

Aldatu ezinaren zekena. Izan ez den bizitza osoa; Goxoki puskatuen goxoa. Fantasiarentzat atsekabe; Destinoa, noski jabe. Batzuetan saminarene sinonimo; Besteetan nahigaberaten antonimo.

Baina zer da bizitza? Zerdá?

Pasioa, emozioa, desioa. Sentimendua, ametsa, fantasia. Fisikoa zein psikikoa; Esana zein izana. Bat datozte amaigabeko galdera honetan.

Begirada altxatzen dut; Pentsamendutik aldentzen naiz.

Eguzkia atera da; Egun berri bat jaio da.

MAIDER ETXAGIBEL • Batx. 1D

Neguko alfabetoa

Idazlea naiz, eta nire nagusiak istorio berezi eta erakargarri bat idaztea agindu dit. Badaramatzat hiru ordu pentsatzen zelan emango didan forma idazkariari, baina orindik ez dakit zelan hasi, ezta zelan bukatu.

Gaur, amets egin dut, amets zoragarria izan da. Tamalez, gauan gertatutakoa kontatzea ez zait origina-lariditzen. Kontakizun bat plagiitzea ere bururatu zait, baina hau berriz, ez zait bidezkoa iruditzen. Arazo baten aurrean nago, eta nazkatzen hasia naiz..

Begiak altxatu ditut, eta... a ze nolako sorpresa!: nire idazgelako apalean, liburu baat besteangandik nabarmentzen da, eta horrek, nite gogoeta piztuarazi du. "Lista de locos y otros alfabetos" du izenburuztat. Gogoratzen dut, orain dela hilabete batzuk irakurri nuela. Azkenik, aukirik altxatu, hartu eta begirada bat bota diot. Balio handikoa suertatu zaidala uste dut.

Albistegia hastea doa: Abenduaren 21. Eguna da guar. Neguan gaude dagoeneko. Hiru egun, soilik, ez dira gelditzen gabonak hasteko. Jaso dudana informazio guztia kontatzen izanda, uste dut, badakidala zein motatako artikulua idatziko dudana.

NEGUKO ALFABETOA

Baimena eskatu bharrean nago, Euskal Alfabetoaren lehendabiziko hizkiari, hasteko "O"-ren beharra dudalako. Tira ba, ONGI ETORRI NEGURA!!!

Orain bai, hastera noa "A"-rekin: aiton-amonak, atsedena eta abendua. Zein motatako erlazioa dago hitz hauen artean?

Ba...egia esatekotan, badago bat. Aiton amona zaharrak direnean atsedena behar izaten dutela eta horretarako hilabeterik egokiena nire ustatan abendua dela.

Jo dezagun orain, bigarrenera: "B". Agian, zu, irakurle adoretzua, erosketazale amorratua zara. Orduan, hau izango da zure hizkia, "B"-k beherapenak adierazten ditu. Zeinek ez du inoiz zerbait garai honetan erosi? Nik neuk, bai behintzat. Berogailuaren exuntua ere ez da baztertzekoa. Zer egingo genuke hura gabe?

Jarraian datorriguna, ez dut oso gogoko eta gainera tristetu egiten nau. "D"-k dirua gogoratzen digu, Gabonetan oso erabilia dena poztasunaerosteko? Beraz, nire ondorioztapen bat da, garrantzi gehiegi ematen diogula. Gure gizartea, geroz eta kontsumistaagoa bihurtzen aari delako.

Kolore batez margotu behar izango banu txuriz margotuko nuke orain datorriguna hizkia. Elurra eta elurrezko panpinak. Ume guztien ametsa eguraldi txarra hasten denean. Noski! Horretarako eskullarrak beharko genituzke, baina...kontuz! Elurrarekin denbora luzez ibiliz gero gaixorik jartzeko arriskua duzu eta zergatik ez ezutla egiteko arriskua.

Izeba osaba, aiton-amonak, lehengusu-lehengusina, anai-arrebak, neba-ahizpa, koinatu-koinata... "F" hizkiak familiaekartzen digu burura. Denoi gustatuko litzaiguke gure familia guztiarekin elkartzea sarritan, baina horretarako unerik aproposena... Gabonak dira!!! Eta konturatu gabe hizki pasatu gara. Gaztaina erreak, goxokiak eta gorrotatzen dugun zerbait. Dioxosozko gripea.

"H"-rekin, hotza eta haizea. Beti gustatu izan zaizkit hiztegi-tan datozen esanahiak. Horra hemen bi hauena:

Hotza: bero gabeziak duen ssentipena. Beroaren aurkakoa.

Haizea: higitzen den airea. Izan daiteke: haize-hezea, lehorra, epela, errea, zakarra, gogorra, nahasia, kasu honetan, neguan gaudenez...HAIZE HOTZA.

Gasteizko Udalak eta Kimuak astialdirako elkarteak antolatu duten Ipuin eta Kontakizun laburren VII. Lehiaketaren 1.saria ikastolako Miren Rodrigo ikasleak irabazi zuen. Zorionak Miren! Ipuina hurrengo hau zen:

La alumna Miren Rodrigo de 2º de Bachiller ganó el primer premio en la VII edición del concurso de Cuentos y Relatos Breves que organiza el Ayuntamiento de Vitoria junto con la asociación de tiempo libre Kimuak. Muchas Felicidades.

El cuento con el que ganó es el que a continuación os presentamos:

Abenduaren 28-a

DEIA: "Julen Gerrero Errealeko jokalarri"

EGUNKARIA: "Araldo Otegi eta Aznarren arteko sexu-harremanak"

GARA: "Gasteiz, Euskal Herriko hiriburua, joku olinpikoetarako hautagai"

Ez al zarete ohartu? Zer egun da gaur? ¡NUXENTE, ¡NUXENTE

Barkatu, atsedenditxo bat egiteagatik, baina nire alaba nagusiak gogoratu dit seme txikiarentzako jostailuak erosi behar ditudala. Ordu bete eman dut jostailu dendan jendez beteta zegoelako. Bapatean, "J"-z oroitua naiz eta korrika batean etorri naiz etxera jostailuena kontatzera.

"K" hizkia ere umeekin erlazionatzen dut, beraiek direlako beti Gabon kantak eta koplak bestu nahi izaten dutenek. Guztiek kantatu izan dugu noizbait: "Hator-hator", "Horra Mari Domingi" eta "Hiru Errege".

"L" letra zikina eta ustela iruditzen zait, lokatza urte-urte agertzen delako inolako errukirik gabe, beraz gutxi dudanez berari buruz esateko "M"-rengana joko dut. Martxoaren 8-a. Neguaren bukaeran ospatzen den egun garrantzitsua: EMAKUMEEN EGUNA. Datak aipatzen hasi naizenez, uste dut aipamen bat sor didala Maiteminduen egunari. Malko bat jausi zait egun honetaz oroitzean, Zergatik ote? Sentitzen dut, baina ezin dizuet kontatu. Egunen batean nire memoriari irakurtzen badituzue jakingo duzue.

"N"-rekin bakarrik esatea, Negua adierazten duela. Barkatu azkartasunagatik, baina irrikitan nago "O" hizkia ailegatzeko. Orain bai, HORRA HORRA GURE OLENTZERO! Eta honekin batera opariak eta ospakizunak.

Txikitari bizi izandako gabon triste batzuk datozkit gogora: Pinu gabekoak ziren. Onartu beharra dago puxikaz eta opariz inguratutako pinu batek poztasuna ematen diela Gabonei. Baina negua ez da bakarrik gabonetaz oroitzen, eta beste hilabete batzuekin ere oroitzen da. ez dezagun ahaztu Negua abenduan hasten dela eta martxoan bukatu.

Istorio hau, bukatzeaz dago eta badirudi neguko kirolak ahaztu ditudala. Oraingoan, hori pentsatu baldin baduzue, okertu egin zarete. SSSS...SNOWBOARD!!! Ez da hitz euskalduna, baina amerikarrek laga digute gaurko honetan erabil dezagun. Beraz, abia gaitzen Baqueira-Beret-era, Astunera edo zergatik ez AITZGORRI-ra!

"T" eta "U", bateratu egingo ditut. Zer da umeek gustokoena dutena hotz egiten duenean? Txokolatetako tximinia-ren ondoan. Tripa-zorriak ditut eta orindik bi hizki ditut aztertzeko. Azken aurrekoa "X"-a da. Galde diezaiegun aurrei xede erligiotsuagatik. Laister asko esango digute gaur eguneko gazteak berekoi hutsak direla eta ez direla gai hauetaz gogoratzen. Tira, ba, arraziotu dute. Ospakizun gehiegi benetako mamia zein den kontutan izan gabe.

Erroilu guzti hau sartu ostein, bakarrik esan dezakedana zera da: ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!!

MIREN RODRIGO ARGOTE • Batx. 2.D

FANIMALS



AITOR I. ERAÑA
DBH 4. B

► IKASLEEN TXOKOA:

Itxaroten

Itxaroten dudan bitartean
nire maitasuna preso dauden izarrak dira
zure begien keinu bat itxaroten,
nire maitasuna ohiartzuna da,
mutua.

Itxaroten dudan bitartean,
itsasoaren aurrean,
bakarrik dagoen buia bezala sufritzen dut.

Itxaroten nire albotik pasa zara,
baina izar zibela zara soilik.

Itxaroten dudan bitartean,
zure irribarreak alde egin du
itxaroten ez dutenengana hegoak astinduz.

Itxaroten,
ez dut nire maitasunean zu harrapatzerik jakin.

Itxaroten,
nire bizitza putzu ilun bilakatu da.

Bakardadea

Bakardade iluna hain da beltza,
Maitasuna eta amodioa galtzen direla
bere barnean.

Gaur ispiluan isladatuta bere aurpegia
ikusi dut.

Bakardadea ixilean urgaineratzen da,
bere zauriak erakutsiz,
arrazoiez mutua,
bizidunen artean hila.

Bakardade lanbrotua,
hain da usua hildakoek ezta
ezin dutela hau gurutzatu.

Gaur ispiluan isladatuta
bere bisaia ikusi dut:
inpotenziaren soslai amaigabea.

Inori ez dizkio atea irekiko,
baina guztiei ixteko prest dago,
kartzelan bizi naiz.

ARITZ ESPINA ETA HARKAITZ LARRAURI